

DURANGO SARIAK 2025

OINARRIAK

Lehenena. Xedea

Berdintasun arloan, sozialean, kulturean zein kirolean, Durangoko eta/edo Durangon lan egin duten pertsona fisiko eta juridikoen lana aitortzeko, egiten da DURANGO SARIAK sarien deialdia, hirugarren oinarrian zerrendatutako kategorietan.

Bigarrenena. Saria

Sariak ohorezkoak baino ez dira, eta ez dute ekarpen ekonomikorik. Egindako lanaren aintzatespen publikoa egingo da eta Durangon egingo den ekitaldian dagokion saria emango da.

Hirugarrenena. Emandako sariak

DURANGO SARIAK, urtean zehar honako kategoria hauetan lortutako merezimenduak aitortzera zuzenduta daude:

- Kirolean nabarmendutako pertsona edo elkarte.
- Kulturearen sustapenean nabarmendutako pertsona edo elkarte.
- Arlo sozialean nabarmendutako pertsona edo elkarte.
- Euskararen sustapenean nabarmendutako pertsona edo elkarte.
- Berdintasunaren sustapenean nabarmendutako pertsona edo elkarte.
- Sari berezia

Era berean, sari horietaz gain, Durangoko Udalak aipamen bereziak eman ahal izango dizkie elkarte eta norbanakoei Durangon berdintasun arloan, sozialean, kulturean zein kirolean, egindako lana aitortzeko eta eskertzeko.

Laugarrenena. Hautatze modua

Aukeratzeko modua honako hau izango da:

1. Edozein pertsonak edo erakundek aurkeztu ahal izango ditu hautagai-zerrenda bat edo batzuk idatziz. Horretarako eskaera Durangoko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan erregistratu beharko du edo egoitza elektronikoaren bitartez.
2. Hautagaitza aurkezteko epea iragarkia Bizkaiko Agiri Ofizialean publikatu eta hurrengo egunean hasiko da, 2025eko martxoaren 24ra arte.
3. Proposamenarekin batera, saria merezi duela onartzeko merezimenduak aurkeztu beharko dira. Merezimendurik gabe jasotzen diren proposamenak ez dira aintzat hartuko.
4. Aintzatespena merezi duen pertsona edo erakunderen bat kanpoan geratzen ez dela bermatzeko, epaimahaiak hautagaitza gehigarriak proposatzeko ahalmena izango du, betiere hautagai-zerrenda horiek dagozkien merezimenduak badituzte. Halaber, epaimahaiak mugak ezarri ahal izango ditu sari bakoitzerako onartutako hautagai-kopuruan, bai sariaren izaeraren arabera, bai gehieneko kopuru jakin baten arabera. Gainera, arlo bakoitzeko teknikari arduradunak atzera bota ahal izango ditu lehiaketaren printzipioekin eta helburuekin bat ez datozen hautagaiak.
5. Horretarako izendatutako epaimahaiak epe barruan aurkeztutako eskabideak baloratuko ditu eta saria merezi duten hautagaiak erabakiko ditu. Irizpide hauen arabera:

- Kultur, kirol edo giza arloan izandako ibilbidea. (10 puntu)



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

- Durangoko kultura, gizarte edo kirol bizitzan inplikazioa (10 puntu)
- Proiektzioa Durangotik kanpo (10 puntu)

6. Herri-bozketa bidez aukeratuko da sari berezia

Sari hau partehartu.durango.eus webgunearen bidez aukeratuko da. Fase honetara kategoria bakoitzeko 5 hautagaitza pasatuko dira: punturik gehienak jaso dituztenak. Bozkatzeko epea apirilaren 1etik 10era izango da.

Bosgarrena. Epaimahaiaren osaera

1. Honako hauek osatuko dute DURANGO SARIAK emateko epaimahaia:

- Presidente: Jérica Ruiz. Durangoko Udaleko herrigintza saileko presidentea.
- Epaimahaikideak:

- o Carlos García. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Jorge Varela. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Arantxa Barrenetxea. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Paule Sánchez. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Iker Txertudi. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Juan Antonio Bueno. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Nagore Lozano. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.
- o Ane Abanzabalegi. Durangoko Udaleko herrigintza saileko zinegotzia.

Gainera, sari bakoitzerako, arloko teknikariaren parte-hartzea aurreikusten da. Teknikariak hitza eta botoa izango ditu bere arloko saridunen bozketan.

- Idazkaria: Ander Alvarez. Durangoko Udaleko herrigintza saileko teknikaria.

1. Epaimahaiak gehiengo soilez erabakiko ditu DURANGO SARIAK. Berdinketa gertatuz gero, presidente kargua duen botoak erabakiko du.
3. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da, eta horren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.
3. Durangoko Udalak irabazleak iragarriko ditu Udaleko web orrialdean eta Udaleko iragarki taulan.

Seigarrena. Publizitatea

Oinarriak eta eskaera orria Durangoko Udaleko web orrialdean (www.durango.eus/durangosariak) egongo dira eskuragarri.

Zazpigarrena. Sari banaketa

Sariak emateko ekitaldia maiatzaren 8a izango da, San Agustin Kultur Gunean.

Durango, 2025eko otsailaren 19an